

ERANSKINAK

1. eranskina: Emilio Xabier Dueñasi elkarrizketa. Transkripzioa.....	27
2. eranskina: BDBn federatutako taldeei pasatako inkesta.....	31
3. eranskina: Inkestaren emaitzak.....	35
4. eranskina: Musika irakasleentzat elkarrizketa fitxak. Galderak.....	40
5. eranskina: Musika irakasleentzat elkarrizketa fitxak. Erantzunak.....	41
6. eranskina: Ikasleen egoera dantzan. Fitxa.....	43
7. eranskina: Ikasleen egoera dantzan. Emaitzak.....	44
8. eranskina: Zazpi jauzi partitura.....	48
9. eranskina: Esku hartzearen diseinua.....	49
10. eranskina: Maite Irizarri elkarrizketa. Transkripzioa.....	64

1. eranskina: Emilio Xabier Dueñasi elkarrizketa. Transkripzioa

1959ko abenduaren 11n Barakaldon (Bizkaia) jaiotako folklorista eta etnografoa. Eusko Ikaskuntzako Folklore Saileko burua da, sail horretako Jentilbaratz izeneko koadernoaz zuzentzen du eta Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko Batzordeko kidea da. Hainbat elkartetako kidea eta koordinatzailea ere bada. Hamaika ikerketa-proiektutan parte hartu du bizkaitarrak; horietako batzuetan, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak edo Eusko Ikaskuntzak eman ditu bekak, ikertzaile-talde bateko kide gisa edo talde horretako zuzendari gisa jarduten aritzeko.

Noiz sortu ziren dantza taldeak euskal testuinguruan? Zein egoera eduki du Bilbok?

Sabino Aranak sortu eta bultzatu zituen dantzak Batzokietako taldeetara bideratuta. Hor sortzen dira dantza talde formalak. Horrela hasi ziren herrikoak ez ziren dantzak egiten, ordura arte herriko dantzak dantzatzen zituztenak herriko jendea baitzen, herriko jai edo ospakizunetan kalea bizitzeko biltzen zirenak. Bilbon, esaterako, ez zegoen dantza tradizionalik, ezta Begoñako aureskua ere. Auresku hori berria da, Beti Jai Alai dantza taldeak Irigoieni esker 90. hamarkadan sortu zuen dantza baita. Marrazkilari baten artelana oinarri hartuta sortu zen, non artelan hori egin zenean oraindik Begoña elizate zenean. Egun ezagutzen dugun dantza horren ezaugarriak (pausoak, arropa edota melodia) beste dantza batzuetan oinarriturik daude. Kontua da Bilbok ez zeukala dantzarik.

Dantza taldeen sorreraz hitz egiten dugunean, Batzokien eta alardeen sorreraz ere mintzo gara, non egun existitzen diren, modu desberdin batean bada ere (dantzari eguna, esaterako). Horrek esan nahi du, XX. mendean zehar Bilbon dantza talde asko sortu zirela, baina inoiz ez dela talde horien jarraipen historikorik egin. Ondorioz informazio asko galdu egin da. Beste talde batzuk, ordea, desagertu ziren, bai, baina lekukoa beste talde batzuk hartu zuten. Horren adibide da *Dindirri* dantza taldea, desagertu egin zena, baina Santutxu auzoko *Gaztedi* dantza taldeak lekukoa hartu zuena. Gaur egungo dantza taldeak, jendea erakartzen ari dira ikuskizunetan dantza egin ahal izateko. Haatik, ez dira ohartzen jende guztiak ez duela balio taula gainean dantza egiteko, ezta jende guztiak ere ez duela gura eskenatoki gainera igotzerik. Orduan, dago jendea dantza egitea gura duena, baina ez duena ezer gehiago nahi, eta hor gabezia bat dago.

Zein izan da dantzaren bilakaera?

Dantza taldeak osatu zirenetik, 70-80. hamarkadan, egoera osasuntsuan zegoen Bilboko dantza. Alabaina, errepertorioa zabaltzean, *crack* bat eman zen, askotan dantza horiek eskatzen zuten musika ezaugarriak ez zirelako orduan ohikoak zirenak. Dantza batzuk dultzaina edota txaranga oso bat eskatzen zuten. Ondorioz, dantza taldeetan txistularien irudia galtzea etorri zen. Dena den, errepertorio zabalkunde horrek kalitate eta janzkera igoera bat ekarri zuen. Baina gaur egun ia-ia “guztiak balio du” kontzeptura iritsi gara. Bilbora bueltatuz, azken 40 urteetan egon dira dantzari indarra ematen jarraitu dutenak: Bihotz Alai taldea, Iñaki Irigoien... ikerketa baten ondorioz etorri diren dantzak plazaratu zituzten, ez zirren errekuperatu, birsortu egin ziren. Bilboko Aste Nagusian, esaterako, egunero dantza talde desberdin batek dantzatzen du plaza berrian, baina gehienak ez dira Bilbokoak izaten, hainbat arrazoiengatik: edo ez dituzte dantza-kideak hirian, edo ez daude nahikoa talde... Baina Beti Jai Alai, Gaztedi eta Salbatzailek bai egiten dituztela. Esango nuke egindako azken zenbaketan hamar bat talde batu genituela, baina baliteke talde batzuk bere jardunarekin ez jarraitzea, eta ondorioz, beraiekin kontaktuan ezin jarri izatea. Talde horietako batzuk erakunde moduan federatuta jarraituko dute, bai, baina jende faltagatik edo beste arrazoiren bategatik beraien jarduna ezerezean egongo da.

Nola bideratu dezaket lana?

Bada, jakinaren gainean egonda *Bizkaiko Dantzarien Biltzarrakoek* ez dizutela apenas kasurik egingo, duela urte batzuk egin genuen ikerketa bat pasako dizut. Egia da ez dagoela guztiz eguneratuta, baina Bilboko dantza taldeekin kontaktuan jartzeko modurik bideragarriena ikusten dut. Pentsa, zoritxarrezko aldaketarik balego, okerrera litzateke. Hau da, listan 9 talde baldin badaude, egoeraren aldaketarekin pentsatzen dut orain gutxiago izango direla, baina ez dakit. Gurera itzulita, interesgarria litzateke dantza talde horiei inkesta bat pasatzea. Bertan galdetzea ea zenbat haur dituzten dantza taldean, beraien errepertorioa, banaketa sexuen arabera, ea ikasten duten hori auzoan edo beste ekitaldiren batean erakusteko betarik daukaten... Modu honetan ikusi ahalko duzu zure ikastetxeko ikasleek ea benetan dantzekiko estimulua garatzeko aukerarik daukaten edo ez. Zeren eta gure dantzak ikusten ez badituzte, bizitzen ez badituzte, arazoa ez da haurrek ez daukatela dantzekiko atxikimendurik, hor arazoa zer den ez dakitela da. Haatik, ikusi egiten badute, baina horretara gerturatzen ez badira, hor, jada, arazoa beste bat izango da.

Dantzak hezkuntza arautuan zein leku eduki du?

Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak (BDB), Gipuzkoako Dantzarien Biltzarrak (GDB), Arabako Dantzarien Biltzarrak (ADB), Nafarroako Dantzarien Biltzarrak (NDB) eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak (IDB), Euskal Dantzarien Biltzarra (EDB) osatzen dute gaur egun. Lehenago dantza talde guztiak EDB barruan zeuden, baina “azpitalde” horien sorreraren ondotik, talde bakoitza bere lurraldeko Dantzarien Biltzarrean sartzen da, bakoitzak ezarritako arauak jarraituz. Hauek arduratu ziren, bere garaian, dantzaren irakaskuntzaz. Bizkaiaren kasuan esaterako, BDBk monitoreak kontratatzen zituen hurrei dantzak irakasteko, baina eskolaz kanpoko orduetan izan ohi zen. Kontua da, orain artean ez dagoela titulurik ez ezer homologatuta dantzak irakasteko. Helburu horretara gehien gerturatu zen mugimendu serioena EHUko diplomatura bat izan zen, 10 kreditukoa, Iñaki Goirizelaia errektore zela. Dantza federazioek gura dute dantzak irakasteko titulazio bat sortzea, baina beraiek ez dira gai, dituzten baliabideekin, hori aurrera eramateko, ez baitaude hezkuntza munduan sartuta. Oso konplexua da. Horregatik, ahal den moduan aurrera egiten da.

Bere garaian eman ziren kurtso batzuetan dantzako irakasleak prestatu gura ziren, baina argi dago bertan irakatsi zenak ez duela fruiturik eman. Hori guztia batzen da Jentilbaratzen. Txulalari, esate baterako ez da horren erreza haurrentzat, hainbat konpas eta pauso nahasten baititu. Egin egiteagatik egin daiteke, baina nola egiten dute? Segur aski gaizki, baina hurrei berdin zaie, baita beraien gurasoei ere. Kontua da, zeintzuk dira haurrentzako dantza aproposak? Dantzaren zailtasun mailak badauka zer ikusia. Plazaratzen denean ondo plazaratu behar da, orduan dantzaren ezaugarriak kontuan hartu beharko dira. Dantza irakasleren baten haur bati beraientzat aproposa ez den dantza bat erakusten badie, haurrak ahal duena egingo du (segur aski gaizki egingo du gorputz mugimenduak mugatu egiten duelako, ezin delako moldatu musikaren abiadurara...). Kontua da irakasle horrek dantzaren salbatzaile papera egiten ari dela uste duela, non guztiz aurkakoa den. Horri guztiari, gainera, dantza maisuaren papera edo figura galdu izana batzen badiozu, bada, galera handi bat dagoela ikus dezakegu.

Zazpi Jauziak aproposak ikusten dituzu?

Jauziek dantza egiteko forma asko daukate. Pausoak ez daukaten zertan izan oso finkoak. Zuk formula erraz bat aurkitzen baduzu, oso baliagarria izan daiteke. Lehenengo egin beharko dena haurraren gaitasunak aztertzea izango da. Orokorrean Zazpi Jauzi dantza oso aproposa da, zenbakizkoa delako eta horrez gain metagarria. Hasteko, gainera, oso ondo dago. Badaude joko gehiago eman dezaketen dantzak: San Petrike, Bizkar dantza... baina

horiek, akaso ez dira horren aproposak lehenengo mailako haurrentzat. Joko gehiago ematen dute, bai, baina pauso gehiago dituzte, lanketa gehiago behar du, gaitasun musikal gehiago eskatzen dute. Polka pik ere aukera ona izan daiteke, baina zerbait falta du dantza horrek, zurrunegia dela iruditzen zait haurrentzat.

Dantzaren irakaskuntzarako metodologiarik badago?

Ez. Guk egin ditugun kurtsoetan betidanik dantzara mugatu ohi izan gara. Metodologia eta ondorengoei transmisioa, transmisorearen esku gelditu izan da. Hor, beraz, gabezia handi bat dago. Esaterako, eskenatokira igo, gerrikoa askatu, nahi gabe zapaldu eta erritmoa galtzen badu haurrak, gai izan behar da erritmo hori berriz ere hartzeko. Hori, ordea, irakasleak erakutsi behar du, dantzaren musikalitatea garatzen lagundu behar du, eta hor sekulako gabezia bat dago, argi dago. Beste ariketa bat ere planteatu genuen, melodia bat jarri eta pultsua mantentzen irakasteko, baina nola irakatsi, guk kurtsoak ematen genien irakasleek ere ez bazeukaten pultsua mantentzeko gaitasunik? Horregatik, oso baliagarria izango da zuk egiten duzuna txostenean ondo islatuta agertzea, azkenean mundu honetako zerbait berria izango baita.

2. eranskina: BDBn federatutako taldeei pasatako inkesta



BILBO ETA EUSKAL DANTZAK

Kaixo guztioi.

Julen Agirre Lizarralde naiz eta Lehen Hezkuntza gradua ikasten nabil. Aurten azken urtea daukat eta Gradu Amaierako Lana euskal dantzen inguruan egin behar dut, Bilboko ikastetxe bat oinarri hartuta. Bilbok euskal dantzekin daukan erlazioa ikusteko zuen laguntza beharra daukat. Bost minutu eskasetan ondorengo galderak erantzungo bazenituzte, Bilbok gure betiko dantzekin daukan zerikusia aztertzeko aukera izango nuke.

Besterik gabe,
Eskerrik asko zuen laguntzarengatik.

Hola a todos.

Soy Julen Agirre Lizarralde y estoy estudiando el grado de Educación Primaria. Este año tengo el último año y tengo que hacer el Trabajo de Fin de Grado en torno a las danzas vascas, tomando como base un colegio de Bilbao. Necesito vuestra ayuda para ver la relación de Bilbao con las danzas vascas. Si en apenas cinco minutos contestaran las siguientes preguntas, tendría la oportunidad de analizar la relación de Bilbao con nuestros bailes de siempre.

Simplemente,
Gracias por vuestra ayuda.

agirrejulen7@gmail.com [Aldatu kontua](#)



Partekatu gabeak

* Galdera derrigorrezkoa dela adierazten du

HIZKUNTZA/IDIOMA *

EUSKARA

CASTELLANO

EUSKARA

DANTZA TALDEAREN IZENA *

Zure erantzuna _____

DANTZA TALDEAREN KOKALEKUA, AUZOA *

Zure erantzuna _____

DANTZA TALDEAREN SORRERA URTEA *

Zure erantzuna _____

HAURREI DANTZAK IRAKASTEKO AUKERA EMATEN DUZUE? *

- BAI
- EZ

EUSKAL DANTZAK HAURREKIN

ZENBAT URTEREKIN HASTEAK ESKAINTZEN DUZUE?

Zure erantzuna _____

NOIZ ARTE EGIN DEZAKETE DANTZA HAURREK? *

Zure erantzuna _____

ZENBAT HAUR DITUZUE DANTZA TALDEAN? *

- 0-20
- 20-40
- 40-60
- 60-80
- 80-100
- 100+

NESKA/MUTIL PORTZENTZAIK

Zure erantzuna _____

IZENDATU, MESEDEZ, 6-12 URTE BITARTEKO HAURREK ENTSAIATZEN
DITUZTEN DANTZAK *

Zure erantzuna _____

URTEAN ZEHAR JARDUTEN AL DUZUE ELKARLANEAN AUZOKO EKINTZETAN? *

(auzoko elkarteekin harremana, auzoko jaiak...)

Zure erantzuna _____

BESTE ZERBAIT ESAN NAHI BADUZU:

Zure erantzuna _____

GAZTELERA

NOMBRE DEL GRUPO DE BAILE *

Zure erantzuna _____

UBICACIÓN DEL GRUPO, BARRIO *

Zure erantzuna _____

AÑO DE CREACION DEL GRUPO *

Zure erantzuna _____

¿DAIS LA OPORTUNIDAD DE ENSEÑAR BAILES A LOS NIÑOS? *

Sí

No

EUSKAL DANTZAS CON LOS NIÑOS

¿CON CUÁNTOS AÑOS OFRECÉIS EMPEZAR? *

Zure erantzuna _____

¿HASTA CUÁNDO PUEDEN BAILAR LOS NIÑOS? *

Zure erantzuna _____

CANTIDAD DE NIÑOS EN EL GRUPO *

- 0-20
- 20-40
- 40-60
- 60-80
- 80-100
- 100+

PORCENTAJE CHICOS Y CHICAS *

Zure erantzuna _____

NOMBRA, POR FAVOR, LAS DANZAS QUE ENSAYAN NIÑOS DE 6 A 12 AÑOS *

Zure erantzuna _____

COLABORÁIS A LO LARGO DEL AÑO EN LAS ACTIVIDADES DEL BARRIO? *
(relación con asociaciones del barrio, fiestas del barrio...)

Zure erantzuna _____


SI QUIERES DECIR ALGO MÁS:

Zure erantzuna _____

3. eranskina: Inkestaren emaitzak

1. HIZKUNTZA

GALDETEGIKO HIZKUNTZA




2. DANTZA TALDEAREN IZENA, AUZOA ETA SORRERA URTEA

- Salbatzaile, Castaños, 1978.
- Beti Jai Alai, Basurto, 1968.
- Bihotz Alai, Deusto, 1958.
- Goi-Herri, San Inazio, 1978.
- Gaztedi, Santutxu, 1951.
- Batasuna Arraizbide, Errekalde, 1973.
- Arraizpe, Uretamendi, 1940.

3. HAURREK DANTZAK IKASTEKO AUKERA ETA ADINA

- Salbatzaile: Bai, 6 urte.
- Beti Jai Alai: Bai, 6 urte.
- Bihotz Alai: Bai, 6 urte.
- Goi-Herri: Bai, 6 urte.
- Gaztedi: Bai, 6 urte.
- Batasuna Arraizbide: Bai, 6 urte.
- Arraizpe: Bai, 6 urte.

ZENBAT URTEREKIN HASTEA ESKAINTZEN DUZUE?




4. NOIZ ARTE IKAS DEZAKETE?

- Salbatzaile: Nahi den arte.
- Beti Jai Alai: 14-15. Gero nagusien taldera.
- Bihotz Alai: 15-16. Gero nagusien taldera.
- Goi-Herri: Nahi den arte.
- Gaztedi: 18 urte gutxi gora behera. Gero nagusien taldera.
- Batasuna Arraizbide: Nahi den arte.
- Arraizpe: 13. Gero nagusien taldera.

5. ZENBAT HAUR DITUZUE ZUEN DANTZA TALDEAN?

- Salbatzaile: 0-20
- Beti Jai Alai: 20-40
- Bihotz Alai: 20-40
- Goi-Herri: 20-40
- Gaztedi: 60-80
- Batasuna Arraizbide: 0-20
- Arraizpe: 0-20


ZENBAT HAUR DITU ZUEN DANTZA TALDEAK?



6. DANTZARIAK SEXUAREN ARABERA (%)

	DANTZARIAK SEXUAREN ARABERA	
	NESKAK	MUTILAK
Salbatzaile	Askoz altuagoa	
Beti Jai Alai	60	40
Bihotz Alai	80	20
Goi-Herri	80	20
Gaztedi	80	20
Batasuna Arraizbide	Askoz altuagoa	
Arraizpe	80	20

DANTZARI KOPURUAK SEXUAREN ARABERA (%)



7. 6-12 URTEKOENTZAKO ERREPERTORIOA

- Salbatzaile: Marmutx, Txulalai, Esku Dantza, Zapatain Dantza, San Roke eta Olagueko esku dantzak, Xan Petrike, Zazpi Jauzi, Lantz, Gorulariak, Zozo Dantza, Txapeloaz, Polka borobila, Polka Pik.
- Beti Jai Alai: Korro/jolasa dantzak (Zapatain, Xan Petrike, Zazpi Jauzi, Jauziak...), Gorularietako dantzak (Uztai dantza, Domingiluaren dantza), Dantzari dantza, Lanestosa, Zaragi dantza, Agurra (Brokel Dantza), El Cieoko dantzak, Luzaideko dantzak...
- Bihotz Alai: Jolas-dantzak (txulalai, esku dantza, zapatain dantza...), Gorulariak, Jauziak, Gure sorkuntzako dantzak.
- Goi-Herri: 20 inguru
- Gaztedi: Biribilketa, Txulalai, Esku Dantza, Zapatain Dantza, Zazpi jauzi, Txapeloaz, Borobila, Gabro, Larraburu, Xoxo Dantza, Aintzina Pika, Ostalerra, Hegi, Sagar Dantza, Kaskarot, Bizkaiko zinta dantza eta Arku dantza, Dantzari Dantza (dantza errazenak).
- Batasuna Arraizbide: Jolas Dantza, jauziak, bizkaitarrak, arabarrak...
- Arraizpe: Jota, Arin-arin, jauziak, Bizkai dantza....

8. URTEAN ZEHAR JARDUTEN AL DUZUE ELKARLANEAN AUZOKO EKINTZETAN? (auzoko elkarrekin harremana, auzoko jaiak...)

- Salbatzaile: Bai.
- Beti Jai Alai: Bai. Agate Deunaren bezpera, Olentzero, Udalak antolatutako programa den “Dantza Plazetan”, Basurtoko futbol taldearekin...
- Bihotz Alai: Bai, auzoko jai batzordearen parte gara. Honako ekintzetan hartzen dugu parte, besteak beste: auzoko jaietan, inauterietan, Olentzero egunean...
- Goi-Herri: Bai, inauterietan, San Inazioko jaietan, Ibarrekolandako jaietan.
- Gaztedi: Bai, auzoko jai batzordean gaude eta urte osoan zehar auzoko ekintzetan parte hartzen dugu.
- Batasuna Arraizbide: Bai, eta inguruko auzoetan.
- Arraizpe: Bai.

9. BESTE ZERBAIT ESAN NAHI BADUZU:

- Salbatzaile: Ez
- Beti Jai Alai: Ohiko zailtasunez gain, adibidez, hurrek egiten dituzten jarduera ugari (futbola nagusiki, hizkuntzak, beste kirol batzuk...) eta azken urteetan jaiotza-tasaren beherakada handia hasi da nabaritzen.
- Bihotz Alai:
- Goi-Herri:
- Gaztedi:
- Batasuna Arraizbide:
- Arraizpe: Lagungarri izan izana espero dugu.

4. eranskina: Musika irakasleentzat elkarrizketa fitxak. Galderak



ELKARRIZKETA FITXA

Irakaslea:

Data: ____/____/____

Arloa:

1. Txertatzen al da euskal dantza zure irakasgaiari? Noiz? Nola?
 - Txertatzen ez bada, zergatik?
2. Zuretzat garrantzitsua al da euskal dantza Lehen Hezkuntzan txertatzea? Zergatik?
3. Euskal dantzarekin egindako lanaketa, beste gai edo esparru batekin batera irakasten duzu? Nola? Dantzari zenbat denbora eskainita?
4. Euskal dantzak zure irakasgaiarekin loturak sortzeko nola egiten duzu edo nola egingo zenuke?

5. eranskina: Musika irakasleentzat elkarrizketa fitxak. Erantzunak

Euskal Herriko
DANIZAK
ELKARRIZKETA FITXA

Irakaslea: Iñigo Olazabal

Data: 2022/02/27

Arloa: Musika

1. Txertatzen al da euskal dantza zure irakasgaiari? Noiz? Nola?
 - o Txertatzen ez bada, zergatik?
2. Zuretako garrantzitsua al da euskal dantza Lehen Hezkuntzan txertatzea? Zergatik?
3. Euskal dantzarekin egindako lanketa, beste gai edo esparru batekin batera irakasten duzu? Nola? Dantzari zenbat denbora eskainita?
4. Euskal dantzak zure irakasgaiarekin loturak sortzeko nola egiten duzu edo nola egingo zenuke?

ERANTZUN ERREGISTROA:

1. Oso gutxitan. Dantzen pieza-musikalak bai sartu izan ditugula noizean behin, baina ez dugu ia inoiz dantza eta musikaren arteko erlaziorik egin.
2. Bai, Ikastola batean gaudelako eta Euskara eta Euskal Kultura (soinu tresnak, dantzak, abestiak...) bultzau behar dira.
3. Abestiak ikasi izan ditugu. Inoiz erakutsi izan dugu dantza musika pieza ikasi ostean. Gero, klase erdik jo eta beste erdiak dantzatzen saiatu izan gara, baina ez dugu askotan egin izan. Lehenengo zikloko proiekturen atean badaude bi antzerki, non batean euskal dantza bat txertatuta dagoen.
4. Proiektuetan dantza gehiago txertatu beharko genuke eta Musikan ere, euskal abesti gehiago eta horiek euskal dantzekin lotu.

Euskal Herriko
DANIZAK
ELKARRIZKETA FITXA

Irakaslea: Aitziber Viñolas

Data: 2022/02/27

Arloa: Musika

1. Txertatzen al da euskal dantza zure irakasgaiari? Noiz? Nola?
 - o Txertatzen ez bada, zergatik?
2. Zuretzat garrantzitsua al da euskal dantza Lehen Hezkuntzan txertatzea? Zergatik?
3. Euskal dantzarekin egindako lanketa, beste gai edo esparru batekin batera irakasten duzu? Nola? Dantzari zenbat denbora eskainita?
4. Euskal dantzak zure irakasgaiarekin loturak sortzeko nola egiten duzu edo nola egingo zenuke?

ERANTZUN ERREGISTROA:

1. Bai, maila guztientan saiatzen naiz gorputz adierazpena lantzen. LH1-tik LH4ra musika klaseak ematen ditut eta orokorrean dantza sinpleak eta haien gustuetatik aukeratzen ditugu pare bat dantza.
2. Gure kultura delako eta ikastolako irteera profilarren bat datorrelako.
3. Normalean, dantzari baino gehiago gorputz adierazpenari eskaintzen diot denbora euskal dantzei baino. Horren helburua ikasleen ikasgelako monotoniaz apurtzea da, mugimendua aprobetxatuz.
4. Izatez erraz beharko luke euskal dantzak sartzea, musika curriculumean sartzen delako, baina gero, errealitatean, ez zaigu horren erraza suertatzen.

6. eranskina: Ikasleen egoera dantzan. Fitxa

Euskal Herriko DANTZAK

BEHAKETA FITXA

Ikas-taldea:

NESKA DANTZARI
KOPURUA

___/___

MUTIL DANTZARI
KOPURUA

___/___

DATA

___/___/___

LEKUA

IRAKASGAIA

ORDUA

___:___

BEHATUTAKO DATU BEREZIREN BAT:

7. eranskina: Ikasleen egoera dantzan. Emaitzak

Euskal Herriko DANTZAK

Ikas-taldea: LH 1A

**NESKA DANTZARI
KOPURUA**

8(0)/13

**MUTIL DANTZARI
KOPURUA**

1(1)/11

DATA

2023/02/24

**LEKUA
Ikasgela**

**IRAKASGAIA
Musika**

**ORDUA
15:30**

BEHATUTAKO DATU BEREZIREN BAT:

Orokorrean gutxi batzuek soilik praktikatzen dute dantza ekintza (9/24). non horietatik gehiengoak (8) neskak diren. 19dantzari horietatik lek soilik egiten ditu euskal dantzak. non dantzari hori mutila den.

Euskal Herriko DANTZAK BEHAKETA FITXA

Ikas-taldea: LH 1B

NESKA DANTZARI
KOPURUA

9(1)/13

MUTIL DANTZARI
KOPURUA

2(1)/12

DATA

2023/02/24

LEKUA
Musika gela

IRAKASGAIA
Musika


ORDUA
11:30

BEHATUTAKO DATU BEREZIREN BAT:


Orokorrean gutxi batzuek soilik praktikatzen dute dantza ekintza (11/25), non horietatik gehiengoak (9) neskak diren. 11 dantzari horietatik 2k soilik egiten dituzte euskal dantzak. mutil bakar batek eta neska bakar batek.

Dantzaren egoera LH 1An


DANTZA EGITEN AL DUTE? LH 1A SEXUAREN ARABERA




DANTZA EGITEN AL DUTE? LH 1A



EUSKAL DANTZAK LH 1A SEXUAREN ARABERA




EUSKAL DANTZAK LH 1A




Dantzaren egoera LH 1Bn


DANTZA EGITEN AL DUTE? LH 1B SEXUAREN ARABERA




DANTZA EGITEN AL DUTE? LH 1B



EUSKAL DANTZAK LH 1B SEXUAREN ARABERA




EUSKAL DANTZAK LH 1B




Dantzaren egoera LH 1n


DANTZA EGITEN AL DUTE? LH 1 SEXUAREN ARABERA




DANTZA EGITEN AL DUTE? LH 1



EUSKAL DANTZAK LH 1EN SEXUAREN ARABERA



EUSKAL DANTZAK LH 1EN



8. eranskina: Zazpi jauzi partitura

ZAZPI JAUZI

Txirula 1. 2/4 F\# 8
 Txirula 2. 2/4 F\# 8
 Klarineta 2/4 F\#\#\
 Triangelua 2/4
 Kutxa txinatarra 2/4
 Panderoa 2/4
 Bonboa 2/4

Tx. 1. 11 8
 Tx. 2. 8
 Kl. 8
 Tria. 8
 Ktx. tx. 8
 Pd. 8
 Bon. 8

* Azken bi konpasak salto kopuruaren arabera errepikatuko dira.

9. eranskina: Esku hartzearen diseinua

1. mailarako finkatutako helburuak:

1. Euskal dantza herrikoietara gerturatzea, musika eta dantzaren arteko zubiak eraikiz, banakako eta taldeko koordinazio eta sinkronizazioa gorputz interpretazioaren bidez lantzeko.
2. Dantza pausoak abestiaren egituraren arabera bereiztea, dantza erabiliz, gaitasun musikalak garatzeko.

1. mailarako finkatutako edukiak:

1. Euskal dantza tradizionalak egitea.
2. Gorputz koordinazioa garatzea.
3. Musikarekin sintonizazioa eta mugimenduarekin koordinazioa garatzea.
4. Gertuko errealitatea ezagutzea.
5. Banaka zein taldean, euskal dantzekiko konexioa sortzea.
6. Dantzaren funtzio sozialaz, ludikoaz eta komunikatzekoaz jabetzea.
7. Erritmoaren jabe izatea.
8. Jakinduria musikalak dantzarekin erlazionatu eta lotzea.

Azalpenetako irudietan zenbakiak agertzen badira, zenbaki horiek altuan esateko da, pausoa ikasteko lagungarri bazaie. R eta L hizkiak agertzen badira, hankari egiten die erreferentzia. R-ak ingelesezko *right* hitzari, hau da, eskuinari, egiten dio erreferentzia. L-ak, ordea, *left* hitzari, ezkerri.

IKASGELAKO ESKU-HARTZEEN FITXA		
Izenburua: Zazpi jauzi!	Arloa: Musika	Maila: 1
Hasiera data: 2023/03/08	Amaiera data: 2023/04/28	Saio kopurua: 6
<p>Esku-hartzearen azalpena: <u>Prestaketa-aldia:</u> Klaseak prestatu aurretik, ikastaldean lan funtzionamendua ezagutu gura izan da. Horretarako, aurreko asteetan gelak behatu dira: ea zenbat triskari dauden zenbatu, horietatik zenbatek egiten dituzten espresuki euskal dantzak, norbaitek motrizitate</p>		

gabeziaren bat zeukan identifikatu... Behin oinarri hori finkatuta, metodologia aztertzeari erreparatu zaio. Piageten eragiketa zehatzen etapa hartu da oinarri moduan, baina aurreko etaparekin, sentsomotorearekin erlazioa egin da. Horretarako, joko sinbolikoa erabili gura izan da, Dalcrozek proposatutako teorian zehaztutako ariketak erabiliz. Ariketak ondorengo hauekin dute zerikusia: espazioaren zentzuarekin, denboraren zentzuarekin, pieza musikalekin, ariketa motor eta psikomotorrekin, dantzarekin eta jolas erritmikoekin. Arestian aipaturiko guztia aintzat hartuta, modu mailakatu batean jardungo dela pentsatu da, saioz saio pauso berri bat txertatuz.

Burutze-fasea:

Esku-hartzea aurrera eramateko aukeratu den ikasgelarako aproposena da dantza *Zazpi Jauziak* dantza dela pentsatu da, dantza honek berak dituen ezaugarriengatik. Alabaina, egutegiari tentuz begiratu behar zaio, ikasgela bakoitzak astean musika klase bakar bat daukalako eta dantza ikasteko modu mailakatu bat erabili behar delako. Honela, egun horretan landutako pausoa ongi lantzeko aukera egongo da, hurrengo astean pauso hori finkatuta egonik eta pauso berri bat sartzeko aukera egonik.

Ikastaldearen adina ikusita, errutinak ezartzea beharrezkotzat hartu da. Hau da, beraiek irakaslea ikustean, automatikoki borobilean jartzea lortu behar da, honela dantzari ekiteko. Hori lortzeko lehenengo klasetik azalpenak argi eta lasai ematea beharrezkotzat jo da.

Ikasleek gogoz hartu dute planteamendua. Lehenengo momentutik azalpenei erne agertu dira. Horrez gain, noizean behin korridoreetan dantzaren melodia abesten entzuten dira eta beste batzuk etxean entseatzeko abestia non aurkitu behar duten galdetu dute. Hortik ondorioztatu daiteke gustura hartu dutela. Azken produktuan ikusi da gogoz lan egitearen ondorioa zein izan den. Gainera, ikasten duten hori azalera eramateak, hau da, norbaiti erakusteak, grina puntu bat sortzen diete, eta gogo gehiago jartzen dute ikasten ari diren horretan. Hortaz gin, ikastetxeak daukan proiektuaren funtsetako bat ere bada egiten duten hori azalratzea, ikasleek ikasten duten horrek zerbaitetarako balio duela senti dezaten.

Ebaluaketa:

- Hasierakoa: errealitatearen azterketa izango da abiapuntua.

- Jarraitua: zuzeneko behaketa bidez burutuko da. Horretarako irizpideak honako hauek izango dira:
 - Kokapen espaziala.
 - Musikarekin ea konektatzen duten.
 - Dantza ikasterako orduan dituzten zailtasunak identifikatzea.
- Bukaerakoa:
 - Azken emaitzaren kalitatea.
 - Ikasleen inplikazio maila.
 - Ikastetxearen harrera.

SAIOAREN ZENBAKIA: 1

MAILA: 1

EGUNA: 2023/03/08

ORDUA: 14:30

EGINDAKOAREN AZALPENA:

Kontuan hartzekoa da esku-hartzean erabiliko den irakas-metodoa imitazio bidezkoa izango dela.. Hala ere, askorentzat ezezaguna den dantza bat da eta azalpen beharrak dituzte, ondorioz, azalpen batzuk emango dira, baina zertzelada batzuk, ez sekulako azalpenak, helburua ikasleentzat erakargarria eta entretenigarria den zerbait planteatzea baita.

1. Ikasleak errutinetan murgildu.
 - a. Espazioaren kokapena nolakoa izan behar den zehaztu.
 - b. Distantziak hartzearen garrantzia azaldu eta azpimarratu.
2. Ikaslea erritmoan murgildu abestia erabili barik. Honako hau da erritmoa:




3. Kanpoko hankarekin hasiko dela esan eta aurreko puntuko erritmoa kontutan hartuta aurrera egiten hasiko dira.
4. Aurrera egiten jarriko dira. Horretarako hasiera batean ikasleek erritmoa (1-2-1,2-3) altuan esango dute lagungarri bazaie. Horren ostean beste buelta batzuk emango

dituzte ezer esan barik.

5. Abestia jarri da eta erritmoa jarraitu dute borobilean aurrera egiten.

Hitz gutxitan:

Gaur dantza ezagutarazi da. Gaurko helburua oinarria finkatzea izan da, errutina eta kanpoko hankarekin hastearen garrantzia. Kanpoko hankarekin hasita, borobilean aurrera egin da, zentzu bakarrean. Salto egiterako momentuan, noski, salto egin dute, egokitzen zen salto kopurua.



SAIOAREN ZENBAKIA: 2

MAILA: 1

EGUNA: 2023/03/15


ORDUA: 14:30

EGINDAKOAREN AZALPENA:



Ikasleak pasaden astean ikasi zutenarekin martxan jarri dira, errutinan murgilduta. Ikasgela batzea da beraien eginbearra, ondoren dantza egiterako orduan, espazioa eduki dezaten. Horrela, beraz, gela batutakoan espazioa kudeatzen eta distantziak ondo neurtzen jarri dira, borobilean jarriz.

1. Aurreko astean ikasitakoari errebaso azkar bat eman zaio, imitazio bidez, gaur, mailakatzearen laguntzaz, dantzari pauso berri bat sartu eta mailaz pixka bat igotzeko.
2. Gaurkoan guztia kanpoko hankarekin egin beharrean, hau da, eskuinarekin hasita, lehenengo erritmoa eskuinarekin hasiko da, eta hori amaitzean ,hurrengo


ezkerrarekin.



a. Hasieran buelta barik egingo da.




b. Gero, buelta sartuko da. Hemen lortuko da buelta ematerakoan kanpoko hanka ezkerre izatea. Hau da, lehenengo bueltan eskuineko (R) da kanpoko hanka, bigarreanean, ordea, (L).



Two large circles with arrows indicating a clockwise direction. Below each circle is a musical staff in 4/4 time with five notes and their corresponding foot patterns: R L R L R and L R L R L.



Hitz gutxitan:

Hasieran hau egin dugu:



A musical staff in 4/4 time with ten notes and their corresponding foot patterns: R L R L R L R L R L.

Ondoren hau:



A musical staff in 4/4 time with ten notes and their corresponding foot patterns: R L R L R L R L R L.



SAIOAREN ZENBAKIA: 3

MAILA: 1


EGUNA: 2023/03/21


ORDUA: 14:30


EGINDAKOAREN AZALPENA:

1. Ikasleak errutinetan murgildu
 - a. Espazioaren kudeaketa aproposa.
 - b. Gorputzaren posizio egokia.
 - c. Kideekiko distantziak.
2. Buelta labur batean aurreko astean ikasitakoa gogoratu gaurkoan pauso berri bat sartu aurretik.
3. “Kanpora-kanpora, barrura-barrura” pausoan murgildu.










8
4/4
KAN PO RA KAN PO RA



8
4/4
BA RRU RA BA RRU RA

4. Pausoa landu poliki-poliki eta dantzaren egitura zuzenera gerturatzen eta murgiltzen saiatu. Orain pauso guztiak ikasita genituzke, dantza hobetzea eta akatsak orraztea geldituko litzateke.

Hitz gutxitan:

Dantza pausoen arabera kronologikoki banatzen badugu, 11 pausotan banatuta egongo litzateke, nahiz eta pauso asko errepikatuak izan. 11 pauso horietarako 7 erritmo edukiko genituzke. Honela pixka bat arrotza ematen duen arren, azpiko irudikapenean hobeto ikus daiteke ikasleek ikasi dituzten pauso eta erritmoak zeintzuk diren.

The diagram illustrates 11 circular dance steps, numbered 1 through 11. Steps 1-4 are simple counter-clockwise rotations. Steps 5-9 involve more complex movements with arrows pointing in various directions (up, down, left, right). Step 10 is a counter-clockwise rotation. Step 11 is labeled 'SALTO' and is represented by an empty circle. Below the diagrams are musical notations for each step:

- Step 1: 4/4 time, notes R, L, R, L, R.
- Step 2: 4/4 time, notes L, R, L, R, L.
- Step 3: 4/4 time, notes R, L, R, L.
- Step 4: 4/4 time, notes L, R, L, R.
- Step 5: 4/4 time, notes L, R, L, R.
- Step 6: 4/4 time, notes L, R, L, R.
- Step 7: 4/4 time, notes L, R, L, R.
- Step 8: 4/4 time, notes R, L, R, L.
- Step 9: 4/4 time, notes L, R, L, R.
- Step 10: 4/4 time, notes L, R, L, R.
- Step 11: 2/4 time, notes R, L.

SAIOAREN ZENBAKIA: 4

MAILA: 1

EGUNA: 2023/03/28

ORDUA: 14:30

EGINDAKOAREN AZALPENA:

Saio honen helburua ikasleak orain artean ikasi duena birpasatzea izan da, dituzten akatsak zuzendu eta dantza orrazteko. Azalpenen bat eman da zalantzarik egotekotan, baina orokorrean ez da zalantzarik egon. Dantza egiten hasi aurretik pausoak birpasatu ditugu eta ikasitako puntu klabeetan (1, 2, 1-2, 3 eta “kanpora-kanpora, barrura-barrura”) jarri dugu fokua. Behin hori eginda, pare bat buelta eman diogu dantzari.

SAIOAREN ZENBAKIA: 5

MAILA: 1

EGUNA: 2023/04/18

ORDUA: 14:30

EGINDAKOAREN AZALPENA:

Saio honetara bosgarren mailakoak jaitsi dira, azken produktuaren aurretik egingo den azken entsegura. Elkarlan honen helburua musikari eta triskarien arteko zubiak eraikitzea izan da, dantza musikara eta musika dantzara egokitzeko. Saio oso baliagarria izan da azken produktura konfiantza gehiagorekin iristeko eta zalantzak egotekotan argitzeko.


Ikasgelan honela kokatu dira dantzari eta musikariak:



DANTZARIAK, LH1



MUSIKARIAK, LH5



SAIOAREN ZENBAKIA: 6		
MAILA: 1	EGUNA: 2023/04/28	ORDUA: 11:00
<p>EGINDAKOAREN AZALPENA:</p> <p>Azken produktua deritzoguna izan da. Jolastordutik hamar minutu hartu dira ikastetxearen aurrean azkenengo bost saioetan ikasitakoa azaleratzeko. Hainbat helburu izan ditu azken produktu honek:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Dantzak musikarekiko duen menpekotasunaz ohartzea. 2. Euskal izaera ardatz duen ikastetxe euskaldun batean euskal dantzak eduki beharko luketen lekua azpimarratzea, eta hein batean, ikastetxearen programazioan dantzak eduki beharko lukeen lekua aldarrikatzea, dauzkan funtzio sozial, politiko eta musikalak azpimarratuz. 3. Maila desberdinetako ikasleak modu natural batean lotzea eta hauen arteko zubi musikal zein sozialak eraikitzea. <p>Azken entseguan moduan kokatu dira.</p>		

5. mailarako finkatutako helburuak:

1. Euskal dantza herrikoietara gerturatzea, musika eta dantzaren arteko zubiak eraikiz, banakako eta taldeko koordinazio eta sinkronizazioa musikaren bidez lantzeko.
2. Musikak dantza batean daukan garrantziaz jabetzea, abestia ahots desberdinetan interpretatuz, azken produktuko musikariak izateko.

5. mailarako finkatutako edukiak:

1. Euskal dantza tradizionalak ezagutzea.
2. Talde koordinazioa garatzea.
3. Musika erritmoa dantzara moldatzea.
4. Gertuko errealitatea ezagutzea.
5. Musikaren garrantziaz ohartzea.
6. Abestia ahots desberdinetan jo eta talde kohesio bat edukitzea.
7. Dantza bat musika bidez interpretatzeko gai izatea.
8. Banaka zein taldean, euskal dantzekiko konexioa sortzea.

IKASGELAKO ESKU-HARTZEEN FITXA		
Izenburua: Jo dezagun	Arloa: Musika	Maila: 5
Hasiera data: 2023/03/08	Amaiera data: 2023/04/28	Saio kopurua: 4
<p>Esku-hartzearen azalpena:</p> <p><u>Prestaketa-aldia:</u></p> <p>Planteamendua ikasgelara eraman baino lehen, talde honek nola funtzionatzen duen jakitea beharrezkotzat hartu da: ea zenbat ikasle diren, zein instrumentu dituzten, zenbaterainoko gaitasunak dituzten, dantzekiko zein ekintza honen musikarekiko daukaten atxikimendua nolakoa den... Gauzak honela, beraz, ikasgelako ezaugarriak kontuan hartuta, partitura sortu da. Horren ostean,, metodologian jarri da fokua. Ikasle hauek ere, Piageten arabera, eragiketa zehatzen aldian kokatzen dira, baina ez dago esan beharrik ez dela berdina lehenengo maila bat (6-7 urte) edota bosgarren maila bat (10-11 urte). Gainera, kasu honetan dantzaren musikalitateari erreparatuko zaio, beraz, Dalcrozen metodoa erabiliko den arren, desberdina izango da. Imitazio bidez jardungo da, denboraren zentzua, pieza musikalak eta jolas erritmikoak oinarri dituzten ariketak erabiliz.</p> <p><u>Burutze-fasea:</u></p> <p>Bi esku-hartzeek, beraz hartu-emana daukate. Partitura hiru ahotsetan egin eta gero, ahotsen banaketari ekin zaio. Aukera aproposena banaketa homogeneouski egitea dela pentsatu da, talde bakoitzean musikalki erreferente bat egonda. Beste era batera esanda, talde bakoitzean erreferente edo lider positibo bat dago. Hau guztia pentsatu ostean, planteamendu didaktikoari hasiera eman zaio, imitazio bidez jardunda. Horregatik, abestia aurkeztutako egunean, ahots bakoitzaren interpretazio bat egin da. Dena den, imitazio horren aurretik parean zuten partituretan zein berezitasun ikusten diren galdetu zen (errepikapenak, jauzien zatia, tonalitatea...). Ezaugarriak komentatu eta interpretazioaren ostean, beraien txanda heldu da: talde txikitik jarduten hasi dira, praktikatzen. Hemen sartu da liderraren papera jokoan. Edozein zalantza zeukatela, taldean galdetzen zuten, inkontzienteki, musika jakinduria gehiago zeukan horrengana jota.</p> <p style="text-align: center;">Ikasleei beraien egin beharra aurkeztean, gogoz hartu dute erronka. Lehenengo</p>		

momentutik egon dira adi azalpenei. Urduritasun puntu bat ere nabaritu igarri a beraien artean, presio puntu bat ere bada eta. Hau da, hurrek dantza ondo egitearen eragileetako bat dira. Azken produktuan ikusi da gogoz lan egitearen ondorioa zein izan den, dantza eta musika ondo egitea. Gainera, ikasten duten hori azalera eramateak, hau da, norbaiti erakusteak, grina puntu bat sortzen dietela, eta gogo gehiago jartzen dutela. Horrez gain, ikastetxeak daukan proiektuaren funtsetako bat ere bada egiten duten hori azalera, ikasleek ikasten duten horrek zerbaitetarako balio duela senti dezaten.

Ebaluaketa:

- Hasierakoa: beraien instrumentuak jotzeko gaitasunak identifikatzea:
 - Ikasle bakoitzaren abileziak.
 - Ezagutzen dituzten instrumentuak.
- Jarrantua: proposatzen zaizkien aurrerapausuak (ahotsetan jotzea) egiteko gai diren:
 - Interpretazio indibiduala.
 - Taldean ahotsetara interpretatzea.
- Bukaerakoa:
 - Azken emaitzaren kalitatea.
 - Ikasleen inplikazio maila.
 - Ikastetxearen harrera.

SAIOAREN ZENBAKIA: 1

MAILA: 5

EGUNA: 2023/03/20

ORDUA: 14:30

EGINDAKOAREN AZALPENA:

Planteatutakoa aurkeztu aurretik, ikasleei ongi etorria eman diet. Behin hori eginda, saioa aurkezteari ekin diot:


1. Proiektua aurkeztu.
 - a. Zer den landuko dena.
 - b. Zergatik landuko den.
 - c. Beraien papera azpimarratu musikari moduan. Hau da, dantza batean musikak, eta ondorioz musikariak, jorratzen duen papera garrantzitsua dela

ohartarazi.

- d. Partiturak eskaini gustu eta gaitasunen arabera, baita instrumentuen arabera ere, eta partiturak banatu. Eskaini egin den arren, aurretiaz tutorearekin hitz eginda neukan ikasle batzuk erreferentetzat hartzeko. Hau da, ahots bakoitzean lider positibo edo erreferente bat egongo da, gidari modura.

Ondorioz, esan dezakegu taldeak heterogeneoki banatu direla.

- 2. Nik adibide bat egin diet, beraiek belarriz doinua entzun dezaten, irakurketa arazorik balego, zailtasunak murrizteko. Hau da, imitazio bidez ikas dezaten.
- 3. Taldetxotan praktikatzen utzi, ahotsaren arabera.
- 4. Taldeak nahastu eta hiru ahotsak nahasten dituen taldetxoak egin azkar batean praktikatzeko.
- 5. Gela ahotsetan banatu eta abestiari buelta bat eman. Gelaren banaketa:



SAIOAREN ZENBAKIA: 2

MAILA: 5

EGUNA: 2023/03/27

ORDUA: 14:30

EGINDAKOAREN AZALPENA:

Hasiera hasieratik ahotsaren arabera banatu dut ikasgela. Behin hori egindakoan, zalantzak argitu ditut eta praktikatzen utzi diet. Denbora tarte batera, buelta bat eman diogu abestiari, goitik behera.

SAIOAREN ZENBAKIA: 3

MAILA: 5

EGUNA: 2023/04/17


ORDUA: 14:30

EGINDAKOAREN AZALPENA:

Saio honetara lehenengo mailako musika klasera jaitsi dira, azken produktuaren aurretik egingo den azken entsegura. Elkarlan honen helburua musikari eta dantzarien arteko zubiak eraikitzea izan da, dantza musikara eta musika dantzara egokitzeko. Saio oso baliagarria izan da azken produktura konfiantza gehiagorekin iristeko eta zalantzak egotekotan argitzeko.

Ikasgelan honela kokatu dira triskari eta musikariak:

DANTZARIAK, LH1
 MUSIKARIAK, LH5



SAIOAREN ZENBAKIA: 4

MAILA: 5

EGUNA: 2023/04/28

ORDUA: 11:00

EGINDAKOAREN AZALPENA:

Azken produktua deritzoguna izan da. Jolastordutik hamar minutu hartu dira ikastetxearen aurrean azkenengo saioetan ikasitakoa azaleratzeko. Hainbat helburu izan ditu azken produktu honek:

1. Dantzak musikarekiko duen menpekotasunaz ohartzea.
2. Euskal izaera ardatz duen ikastetxe euskaldun batean euskal dantzak eduki beharko luketen lekua azpimarratzea, eta hein batean, ikastetxearen programazioan dantzak eduki beharko lukeen lekua aldarrikatzea, dauzkan funtzio sozial, politiko eta musikalak azpimarratuz.
3. Maila desberdinetako ikasleak modu natural batean lotzea eta hauen arteko zubi musikal zein sozialak eraikitzea.

Azken entseguan moduan kokatu dira.

10. eranskina: Maite Irizarri elkarrizketa. Transkripzioa

Maite Irizar Arregi, Oñatiko dantzen munduan erreferente izan direnen eta direnen oinordeko erreferente bat da. Urte luzez dihardu Oñatiko zein beste herri askotako dantzen inguruko informazioa batu eta horien lanketa egiten. Azpimarratzekoa da Oñatiko dantzen ikerkuntzan egiten duen lana, etxetik jasotako legatua mandendu eta horri etorkizun bat bermatzeko.

Noiztik dakigu dantzak daudela gure herrian?

Oñatiko lehen dantzarien erreferentzia Korpus jaietako dantzariena da, 1560. urtean. Harrezkeroztik 70. hamarkada arte, dantzariak beraien jarduna Korpus jaietara bideratzen zituztela esan daiteke. Beraz; Oñati, dantzak eta Besta-berri jaiak ezin dira bata bestea gabe ulertu. Faktura batzuen ondorioz jasotzen da lehenengo dantzarien izkribua. Bertan idatzirik ageri da Korpus egunez dantza egiteagatik diru-sari bat jasotzen zutela. Soldata hori, baina, ez zen berdina guztientzat. Kapitain lana (dantza-maisua) egiten zuenarentzat ordainsari handiago bat zegoen: beste guztien bikoitza. Honen ardura nagusiak urtean zehar dantzariak prestatzea, Korpus jaietan dantzak arazo barik egitea eta emanaldian itxurazko maila ematea ziren.

1970. urtean sortu zen Oñatz dantza taldea. Horrenbeste urtez dantzatu duen herri bat izateko, nola funtzionatzen zuen transmisioak?

Aurretik aipatu dugu Oñatiko dantzariak nola lan egiten zuten, udaleko soldatapean. Urte batzuk aurrera egin ostean, II. errepublika garaian, Batzokiko dantza taldea sortu zen gure herrian. Poxpolin eta ezpata dantzariak osatzen zuten talde hau. Halaber, talde honen ibilbidea Gerra Zibilean bukatutzat eman zen.

Gerora, Sección Femenina garaiko taldea daukagu. Espainia osoan bereziki emakumeentzat sortutako mugimendua izan zen. Oñatin egin ziren ekintzen artean, emakumeei herriko dantzak (Gorpuzti jaietakoak) erakustea izan zen, garaiko dantza-maisuaren eskutik.

Gabon egunerako ere dantza talde xume bat sortua zen, Gabon giroa epeldu asmoz. Horrez gain, Oñatiko Araotz auzoan dantza talde bat ere egon zen, 70. hamarkadan Mikel Amasen eskutik sortu zena. Sortzaileak Donostiako seminarioan ikasten zuen, baina uda aldi osoa auzoan pasatzen zuen. Horrela, egun horiek aprobetxatuz, apaiza auzoko haur zein gaztetxoei hainbat dantza irakasten ibili zen. 6 urte iraun zuen dantza taldeak.

Azkenengo urte hauetara indar gehienez heldu den istorioa, akaso Oñatz dantza taldearen aurretik egon zen talderik berriena zelako, Izarrak dantza taldearena izan da, Zubillaga auzoko dantza taldea. Diktadura epokan, euskaltzaletasuna indarra hartuz joan zen urteetan zehar. Horrela, Zubillaga auzoan, euskal kulturgintzako hainbat abesti eta antzerki irakasten hasi ziren bertako haur zein gazteei. Herrian, eta batez ere auzoan, arrakasta handia izan zuen. Gazteen gogoak eraginda, euskal dantzak ikasteko baliabide bila hasi zen auzoa. Horretarako, udaleko dantzari zen Jesus Irizarri, *Txutxini*, eskatu zioten maisu lanetan jarduteko. Kontuak honela, 1968. urtean, auzoko haurrei Oñatiko Dantzak irakasteko ardura hartu zuen.

Hori guztia gutxi balitz, *Oñatz Social Cultural Recreativa* elkarteak (dantza taldea garai haietan elkartearen barruan aurkitzen zen, baina gero banaketa bat eman zen eta dantza taldea gelditu zen *Oñatz* izenarekin), 1970. urtean antolatutako herriko I. haurren egunenean ere dantzatu zuten Zubillagako haurrek. Egun hori izan zen mugarri Oñatiko dantzaren historian, hor hasi baitzen egun ezagutzen dugun Oñatzen ibilbidea.

Dantza-maisuen figurarik eduki al dugu Oñatin?

Dantza maisuen inguruan badago zer esana. Gainera, azken urte hauetan, lehenago ez bezala, figura hau gehiago gorai patzen dela pentsatzen zait. Molde zaharreko dantza-maisuen artean aurkitzen zen *aittaitta* Alejandro (30. hamarkada). Horrek esan gura du, mendeetan bizirik zegoen tradizio bat are biziago mantentzeko irakasbidea eman duen pertsona izan dela dantza-maisuena. Bestalde, ondorengo belaunaldian, gure *aitta* Jesus Irizar (1971. urtetik aurrera), *Txutxin*, izango zen dantza-maisua. Halaber, honen figura ezin da molde zaharrekoa dela esan. Dantza-maisua da, bai, baina berak ez zuen (eta ez du) soldatarik jasotzen dantza talde baten eta dantza jakin batzuen sostengurako. Alabaina, irakasteko eta dantza taldean lan egiteko duen formak, molde-zaharreko dantza maisuena da, beraien aita Alejandro zenarengandik jasotakoa. Ondorioz, Jesus dantza-maisu bat dela esan daiteke. Gainera, ez da dantzak erakusten dituela bakarrik; urte osoa pasatzen du Korpus tradizio, dantza eta jaiak lotuta, jai edo erritu hau ondare izan dadin egiten dituen ahaleginek dantza-maisuen figurara hurbiltzen du.

Beste dantza maisu eredurik ezagutzen duzu?

Gure herritik gertu, Beasaingo dantza-maisua egongo litzateke. Xabier Sarriegi zen hura, *Paxatxo*. Hau izan da gure artean eduki dugun molde zaharreko azken dantza-maisua. Iaz, Beasaingo Aurtzaka Dantza Taldeak dokumental bat atera zuen, *Azken Dantza Maisua* izenpean, *Paxatxoren* figura azpimarratzeko. Alabaina, dokumentalaren atzean ez dut uste soilik beasaindarren egoera islatu gura denik, baizik eta Euskal Herriko dantza talde guztietako mugarrin, dantza-maisuen eta transmisioaren aldaketa edota galera bat. Dokumental horretan galdera bat dago oinarri moduan: orain arteko transmisioa dantza-maisuen bitartez gauzatu baldin bada, eta egun horrelakorik gelditzen ez denez, transmisio hori beste eragile edo agente batzuen esku gelditzen da, ondorioz; aurreko guzti horrek jarraipen bat edukiko du?

Galdera hori bera askotan planteatu diot nire buruari, ea gure aita ez dagoen egunean jarraituko ote duen edo ez. Nire gaurko erantzuna baiezkoa da, baina baiezko horretan hutsune batzuk emango dira, azken finean, transmisio horretako eredu bat galduko delako.